

◦ Euskal Herrian Ihesi webgunea ◦

Osa dezagun gure gida sarean

Aldizkarian Ihesi sailak urte luzez egin duen gisa, Interneten ere Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko eta gure txokoez gozatzeko aukera ugari bildu nahi izan ditugu. Tokiko informazio osoa duzu www.ihesi.com helbidean.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

NOIZ DIRA Ezpeletako festak? Lizarrara joaten banaiz, non bazkaldu dezaket? Orion zer bisitatu beharko nuke? Denon artean erantzun ahal izango ditugu hau bezalako galderak hemendik aurrera. Euskal Herriko zazpi lurraldeak bere baitan hartzen dituen euskarazko turismo webgunea sortu du **ARGIAK**, halakorik ez dagoela ikusita. Makina bat udalerritako informazioa jasotzen eta eskaintzen du webguneak, lurraldeka, zonaldeka nahiz gomendio bidez sailkatuta. Pixkanaka, udalerrri guztiak biltzea da helburua.

Herritarren parte-hartzea, hori da gunearen berezitasunik handienetakoa. Izan ere, oinarritzko informazioaren gainean, erabiltzaileek beraiek egiten dituzten proposamenak dira weba elikatzen eta aberasten joango direnak. Hala, erabiltzaileak bere herriko edo ezagutzen dituen lekuetako aukerarik onenak gomendatu ditzake. Gainerakoek emandako boto kopuruaren esku egongo da proposamen bakoitza zerrendan gorago edo beherago agertzea. Zenbat eta leku gehiagotako proposamenak bildu, orduan eta osatuagoa izango da Euskal Herri osoari buruz herritarrek eskura izango duen informazioa. Denborarekin, parte-hartze irekiari esker, webgunea jendearen gomendio interesgarri jantzitako datu-base erraldoi bihurtzea da asmoa.

Bestalde, publizitatea jartzeko tartea ere izango du edonork. Herri bakoitzean, adibidez, bannerrak jartzeko aukera eskaintzen da, modu berritzailean: zuzenean, “Jarri zure bannerra” atalean sar daiteke nahi duena, eta hor barruan, nahi duen publizitatearen tamaina hautatu dezake, baita zenbat egunez ager-



tzea gustatuko litzaiokeen ere. Automatizatu-ta dago dena, baita ordainketa ere.

Laburtuz, Euskal Herriko bazterren xehetasun eta bitxikeriak jakin nahi dituenari eta norbere proposamenak gainerakoen esku utzi nahi dituenari zuzendutako gunea da hau, herrietako informazio praktikoa eta aberasgarria eskaintzeko xedez. Euskal Herria elkarri hurbilduz, gure herria hobeto ezagutu dezagun, eta gehiago goza dezagun. ■

